

## **Foru Aldundiak “Wildlife Economy” Europako proiektuko Mendialderako ekintza plana idazten amaitu du**

*Bi jarduera ildo estrategiko ditu, naturako eta paisaiako bi baliabide identifikatu ondoren. Baliabide horiek funtsezkoak dira eskualde mailan, eta proiektzio ekoturistiko handia dute*

*Arabako Foru Aldundiaz gain, “Wildlife Economy” proiektuan Herbehereetako, Belgikako, Suediako eta Alemaniako administrazioek, entitateek eta eragileek hartu dute parte.*

**Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 27a.** Arabako Foru Aldundiak arrakastaz amaitu du Interreg Europe “Wildlife Economy” proiektuaren Mendialderako eskualde ekintzako plana idazteko fasea. Proiektuaren helburua da Europako eskualdeei laguntzea hazkunde jasangarria lortzen, hartara haiei ahalbidetzeko beren balio naturaletan oinarritutako eskualdeko garapen ekonomikoko politikak hobetzea. Natura aktibo ekonomikotzat jotzen du, eta bere baliabide naturalekin sustraituko diren eskualdeko garapen ekonomikorako politikak hobetzearen aldeko apustua egiten du.

Josean Galera Ingurumen Saileko foru diputatuaren ustez, "proiektu honek beste herrialde batzuetako jardunbide egokietatik ikastea ahalbidetu digu naturatik abiatuta, estrategia ekonomiko berritzaile, bideragarri eta erakargarri handia dela erakutsiz".

Arabako, jarduera eremua Mendialdea da. Eskualde horrek ezaugarri sozioekonomiko eta balio natural oso esanguratsuak ditu, eta, hortaz, eskualde hori aproposa da “Wildlife Economy” proiektuaren helburuak lortzeko.

Bi urte eta erdian, Europako hainbat bazkidek ekonomiako esperientziak eta jardunbide egokiak trukatu dituzte, naturan oinarrituta, proiektuaren esparruan. Arabako Foru Aldundiaz gain, “Wildlife Economy” proiektuan Herbehereetako, Belgikako, Suediako eta Alemaniako administrazioek, entitateek eta eragileek hartu dute parte.

2019ko azaroaren amaieran Mendialdean izandako lehen topaketatik, modu aktiboan egin da aurrera eskualde ekintzako plan bana idazteko prozesuan eraginpeko eskualdeentzat. Bileren, ikasketa bisiten, web mintegien, eskualde bakoitzari egokitutako azterlanak egitearen, esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzearen bidez, proiektu honen lehen fasea amaitu ahal izan da, hain zuzen, eskualde ekintzako plana bera idaztea.

Mendialdeko eskualde ekintzako planak bi jarduera ildo estrategiko ditu, naturako eta paisaiako bi baliabide identifikatu ondoren. Baliabide horiek funtsezkoak dira eskualde mailan, eta proiektzio ekoturistiko handia dute Baliabide horiek eskualdeko ekoturismoaren eskaintza osatu eta zabaldu dezakete, Izkiko Parke Naturalarekin ere sinergiak sortuz.

Ildo estrategikoetako bat Ibilbide Berde bat biziberritzea da, hau da, Vasco-Navarro Trenbide Zaharreko Bide Berdea. Urtero 295.000 txirrindulari eta ibiltari baino gehiago erakartzen ditu, eta balio aparta dauka naturara errespetuz hurbiltzeko eta Mendialdean dinamizazio sozioekonomikoa egiteko.

Horri dagokionez, aurten, eta eskualde ekintzako planaren ekintzak ezartzeari buruzko proiektuaren 2. fasearen esparruan, Vasco-Navarroko Bide Berdean azpiegiturak, ekipamenduak eta zerbitzuak ematen jarraitzeko ekintza eta finantzaketa bideak eta tresnak bilatzea proposatzen da, baliabide ekoturistiko hori sendotzeko eta etengabe hobetzeko bidean jarrai dadin.

Eskualde ekintzako planean identifikatutako bigarren ildo estrategikoa "Mendialdeko asfalto naturalen meatzaritza paisaiak berreskuratu eta balioztatzea" ingurukoa da. Mendialdeko asfalto naturalen meategi zaharretako meatzaritza paisaien ingurumena pixkanaka lehengoratzeko eta Izkiko Parke Naturalean kokatuta dagoen meategi zahar horretako balio handieneko espazioetako bat den Lucia meategiarekin lotutako jarduera ekoturistikoak garatzea da jardueraren helburua.

Alde horretatik, Galeraren ustez, "meatze espazioak berreskuratzeak ahalbidetzen du eremu narriatu horiek lehengoratzeko eta turismo industrialari eta naturakoari balioa ematea, eskualdeko garapen sozioekonomikoa bultzatzen lagun dezaten".